

IRAKASLEAK. SENTSIBILIZAZIOA

3.1. TRESNA. ZENBAIT KONTZEPTU ARGITUZ.

(Dinamizatzailearentzako kontsulta-materiala)

Dokumentu askotan zehazten dira Hezkidetzarekin eta genero-berdintasunarekin lotutako oinarritzko kontzeptuak; haietatik, interesgarrienak eta gure proposamenarekin bat datozela iruditu zaizkigunak hartu ditugu.

Kasu bakoitzean kontsultatutako iturriak agertzen dira.

Eskola mistoa. Hezkuntza-eredu horretan, ikasleak (neskak zein mutilak) eskola-agertoki berean aritzen dira gizonezkoen ordena sinbolikoa zalantzan jarri gabe eta emakumeen jakintzak eta espektatibak txertatu gabe.

(Lomas, C. (comp.). (2004). *“Glosario” Los chicos también lloran. Identidades masculinas, igualdad entre los sexos y coeducación*. Bartzelona: Arg: Paidós, 234. orr.). 2015eko uztailaren 28an errekuperatuta, hemendik:

<https://www.educacion.gob.es/intercambia/IrASubSeccionFront.do?id=1430>

Ezagutzen dugun eskola mistoak Hezkidetzaren lehen modu bat dakar berarekin batera, oraindik androzentrismo oso zipritinduta dagoena, eta funtsezko alderdi batean aurrera egin behar du: genero femeninoa eta hark neska-mutilei kultura komun eta ezinbesteko baten osagai gisa sortu dizkien jakintza guztiak sartzean, hain zuzen.

(Subirats, M. (2009). La escuela mixta ¿garantía de coeducación? *CEE Participación Educativa*, 11, orr.: 94-97). 2015eko uztailaren 28an errekuperatuta, hemendik:

<http://www.mecd.gob.es/revista-cee/pdf/n11-subirats-martori.pdf>

Eskola hezkidetzaillea. Hezkuntza-erakundea da, neska-mutilekin esku hartzeko nahitako prozesu bat gauzatzen saiatzen dena. Prozesu horren bidez, bi sexu desberdinen errealitatek abiatuta, haien garapena sustatzen da, kontrajarrita ez dauden garapen pertsonal eta eraikuntza sozial komun baterantz. Aldatu nahi diren kontuetan, hau da, eskolako eta kulturako sexismoan, errealitatea aintzatestea, aztertzea eta kritikatztea du abiapuntu.

(Simón, M. E. (2001). Coeducar chicos con chicas: el reverso de la escuela mixta. Blanco, N. (koord.). *Educación en femenino y masculino*, 4. kap., orr.: 59-70. Madril: Andaluziako Nazioarteko Unibertsitateak / Akal).

Hezkidetzeta. Heziketa planteatzeko modu bat da Hezkidetzeta, genero-desberdintasunak progresiboki desagertzea helburu duena, eta ez eskolako egitura formalean bakarrik, baita hezkuntzaren ideologian eta jardunean ere. Kontua da gizonezkoen kulturaren eta emakumezkoen kulturaren alde positibo guztiak berreskuratu nahi direla, eta era dikotomikoan genero bakar bati lotuta ez dauden jokabide-erreferente bihurtu, neska eta mutilen giza garapena bultzatzeko eta identitate pertsonala duten subjektuak direla onartzeko, genero-estereotipoak alde batera utzita.

Hezkidetzeta edozein hezkuntza-eragilek nahita garatutako hezkuntza-arloko esku-hartzearen eduki, helburu eta estrategien multzoa da, genero-estereotipoek ezarritako mugarik gabeko garapen pertsonala sustatzeko eta pertsonen pentsamenduan, jarreretan, portaeran, ikuspegian eta interpretazioan aldaketak eragiteko. Kontua da sexua dela-eta gizakiengan dauden desberdintasunak prebenitzea, sustatzea, konpentsatzea edo desagerraraztea, zeinek kultura androzentriko eta patriarkalak berezko duen bereizkeriaren inertzia beste justifikaziorik ez duten.

(Eusko Jaurlaritza Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. (2013). *Hezkidetzarako eta 2020ko Hezkuntza Sistemaren Genero Indarkeriaren Prebentziorako Plan Zuzentzailea*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia). 2015eko uztailaren 28an errekeratuta, hemendik:

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/es/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_conviven/adjuntos/coeducacion/920006c_Pub_EJ_hezkidetza_plana_c.pdf

Heziketa afektiboa eta sexuala. Harreman afektiboak eta sexualak behar bezala garatzera bideratutako Hezkuntza, pertsonen prestakuntza integralaren oinarritzko alderdia den aldetik.

(AA. VV. (2008). *Breve diccionario coeducativo*. Asturias: Hezkuntza eta Zientzia Kontseilaritza. Hezkuntza Politiken eta Ikasketen Antolamenduaren Zuzendaritza Nagusia. Asturiaseko Printzerria). 2015eko uztailaren 28an errekeratuta, hemendik:

<http://institutoasturianodelamujer.com/iam/biblioteca-digital/breve-diccionario-coeducativo/>

Ikusgarritasuna. Ikusezina dena ikusgai bihurtzeko, argitara ateratzeko eta emakumeen historia eta bizitza gure errealitatean eta historian txertatzeko prozesua. Ikusgarritasunak zera dakar berarekin batera: emakumeen historia, munduan eta bizitzan duten eginkizuna, azken batean gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren ideia, aitortzea eta balioestea.

(AA. VV. (2002). *Materiales para la observación y el análisis del sexismo en el ámbito escolar*. Gijón: Hezkuntza eta Zientzia Kontseilaritza. Gijóneko Irakasleen eta Baliabideen Zentroa). 2015eko uztailaren 28an errekeratuta, hemendik:

https://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=1&ved=0CCIQFjAAahUKewj16pm2pP7GAhUDOBQKHdG5Bjk&url=http%3A%2F%2Fmforprofsfec1g1.wikispaces.com%2Ffile%2Fview%2F03%2BMateriales%2Bpara%2Bla%2Bobservaci%25C3%25B3n%2By%2Bel%2Ban%25C3%25A1lisis%2Bdel%2Bsexismo%2Ben%2Bel%2B%25C3%25A1mbito%2Bescolar%2B2.pdf&ei=-7K3VbUBg_BQ0fOSyAk&usq=AFQjCNH2JZRDzgLb5tZaq5GK1G5ets0PDA&bvm=bv.98717601,d.d24&ad=rja

Ikusezintasuna. Gizarte-zientzietan asko erabiltzen den kontzeptua da, hain zuzen ere, gizarte-talde jakin baten presentzia alde batera uzten duten kultura-mekanismoen multzoa izendatzeko. Ikusezin bihurtzeko prozesuek menderatze-harremanak dituzten taldeei eragiten diete batez ere, eta kasurik nabarmenena emakumeena da. Ikusezin bihurtzea kausa eta ondorioa da hizkuntzaren erabilera sexistaz ari garenean. Emakumeen lana ikusezina da, haien ugalketa-jarduerak (denbora eta esfortzua eskatzen dutenak) ez direlako diruz baloratzen. Munduaren pertzepzio androzentrikoak emakumeak historiaren, kulturaren edo zientziaren arlo guztietan ezkutatzea ekarri du.

Sexua. Pertsonen ezaugarri biologikoen multzoa da, jaio aurretik zehazten eta funtsean aldaezinak direnak, eta gizon edo emakume gisa identifikatzen dituztenak.

Generoa. Eraikuntza kulturala, zeinaren bidez sexu biologikoaren arabera gizonentzat eta emakumeentzat bereizitako rol sozialak, jarrerak eta gaitasunak atxikitzen baitira. Kontzeptu horrek bereiztasun biologikoei kontrajarrita ikasi, denborarekin aldatu eta aldaera ugari dituzten desberdintasun sozialei egiten die erreferentzia. Sistema politiko, ekonomiko, kultural eta sozialek sozializazio-eragileen bidez ezartzen dituzten eta alda daitezkeen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun soziokultural horiek demarkatzeko erabiltzen da.

Erantzunkidetasuna. Etxeko erantzukizunak emakumeen eta gizonen artean banatzea da, hau da, emakumeek bizitza publikoan erabateko parte-hartzea izan dezaten bultzatzea, eta, horretarako,

gizonek familiako jardueretan duten erantzunkidetasuna sustatzea. Horretarako, beharrezkoa da publikoaren eta pribatuaren arteko harremana aldatzea, kontuan hartuta bi espazioek, elkarren mendekoak eta bizitzan osagarriak, garrantzi bera dutela.

Soldata-arrakala

Emakumeen eta gizonen arteko soldata-desberdintasunaren kontzeptuak (edo soldata-aldea edo arrakala) emakumeen eta gizonen batez besteko ordainsarian (soldata gehi osagarriak) dagoen aldea adierazten du.

Soldata-arrakalak diskriminazioa eta desberdintasunak islatzen ditu lan-merkatuan, eta, praktikan, batez ere emakumeengan dauka eragina.

Soldata-arrakala horrek eragin zuzena du Gizarte Segurantzako kotizazioetan eta pentsioen ondorengo pertzepzioan, eta lotura estua du emakumeen autonomia ekonomiko txikiagoarekin eta pobrezia-indize handiagoekin, zeinak zuzenean eragiten baitie beren ardurapean dituzten seme-alabei, batez ere emakumeak familia-buru diren kasuetan.

(Emakunde. Euskal Autonomia Erkidegoko soldata-arrakala. 2018).

<https://www.emakunde.euskadi.eus/informacion/informes/u72-contema/es/>

Berdintasuna. Egoera horretan, gizaki guztiak aske dira beren gaitasun pertsonalak garatzeko eta beren erabakien jabe izateko, rol tradizionalak ezarritako inolako mugarik gabe. Eta, emakumeen eta gizonen jokabideak, nahiak eta premiak berdintasunez aintzat hartu, balioetsi eta indartzen dira.

Emakumeen aurkako indarkeria.

Gizon batzuek emakumeen aurka emakume izate hutsagatik erabiltzen duten indarkeriari zenbait modutan deitzen zaio: indarkeria matxista, indarkeria sexista, genero-indarkeria edo emakumeen aurkako indarkeria. Indarkeria hori, nagusiki, gizonek emakumeekiko duten botere-sistema asimetrikoaren ondorioa da, eta horrek generoan oinarritutako diskriminazioa eragiten du.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak egiten duten definizioarekin bat etorritik, eta emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko Europako Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 11ko Hitzarmenari jarraituz, emakumeen aurkako indarkeriatzat hartzen dira generoan oinarritutako indarkeria-ekintza guztiak, emakumeentzat kalte edo sufrimendu fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoak dakartzatenak edo ekar ditzaketenak, ekintza horiek egiteko mehatxuak, hertsapena edo askatasunaz arbitrarioki gabetzea barne, bizitza publikoan edo pribatuan (Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmena edo Istanbulko Hitzarmena da aipatutakoa).

Gainera, honako hauek adierazten ditu: emakumeen aurkako indarkeria, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurkako indarkeria, emakumeen eta neskatuen aurkako sexu-indarkeria, sexu-abusua, sexu-erasoa eta sexu-jazarpena edozein esparrutan, emakumeen eta neskatuen salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, feminizidioa, adin goiztiarrean ezkontzea, itundutako edo behartutako ezkontzak, eta emakumeen osotasunari edo askatasunari kalte egiten dion beste edozein indarkeria-mota.

(EAEko Hezkuntza-sisteman Hezkidetza ezartzeko II. Plana aurkeztu da, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023).

http://www.euskadi.eus/web01-a3hbconv/es/contenidos/informacion/inn_convivencia_conv_positiva/es_def/index.shtml

Aniztasuna. Aniztasuna barietate, ugaritasun, gauza ezberdin asko bezala ulertzen da. Aniztasun hitzak zentzu positiboa dakar sozialki: zerbait anitza ona da. Biodibertsitatea bezalako hitzek aniztasun biologikoaren aukera planteatzen digute, ezinbestean elkarrekin biziz. Antropologikoki, aniztasuna gizakiak izateko eta bizitzeko modu desberdinen parte da.

(Platero, R. eta Gómez, E. (2007). *Herramientas para combatir el bullying homofóbico*, 220-222). Madril: Talasa). 2015eko uztailaren 28an errekeratuta, hemendik:

<https://biblioteca.ucm.es/escritores/platero/obras/obr2856.pdf>.

Sexu-aniztasuna. Termino horrek sexualitatearen gama osoari egiten dio erreferentzia, eta erakarpenaren, portaeraren, identitatearen, adierazpenaren, orientazioaren, harremanen eta sexu-erreakzioen alderdi guztiak biltzen dira. Gizakiek izaki sexual gisa dituzten alderdi guztiei buruzkoa da.

(IPPF, International Planned Parenthood Federation. *Caja de herramientas sobre diversidad sexual. Glosario*). 2015eko uztailaren 28an errekeratuta, hemendik:

<https://www.ippfwhr.org/es/publicaciones/caja-de-herramientas-sobre-diversidad-sexual>

https://www.ippfwhr.org/sites/default/files/uploaded_documents/CajaDeHerramientasSD_Seccion5.pdf

Hizkuntzaren erabilera sexista. Adierazpen horrekin, emakumeak diskriminatzen dituen, gizonen mendeko egiten dituen edo, besterik gabe, ordezkaten ez dituen hizkuntzaren erabilera ari gara.

(INTEF, Hezkuntza Teknologien eta Irakasleen Prestakuntzarako Institutu Nazionala. *“Coeducación: dos sexos en un solo mundo”*. 2. modulua: *Nombrar a ambos sexos*). 2015eko uztailaren 28an errekeratuta, hemendik:

http://www.ite.educacion.es/formacion/materiales/112/cd/m2/uso_sexista_del_lenguaje.html

Androzentrismoa. Androzentrismoa munduaren ikuspegi bat da, gizona gauza guztien erdigunetzat jotzen dituen.

Errealitatearen ikuskerari hori ideia honetatik abiatzen da: gizonen begirada posible eta unibertsal bakarra da, eta, horrenbestez, pertsona guztientzat orokortzen da, gizonak zein emakumeak izan.

Androzentrismoak berekin dakar emakumeen eta haien munduaren ikusezintasuna, emakumeen begirada ukatzea eta emakumeek egindako ekarpenak ezkatzea.

<http://www.mujaresenred.net/spip.php?article1600>

Patriarkatua. Sexu- eta politika-harreman sozialen sistema, zenbait erakunde publiko eta pribatutan oinarritutako erakundetan oinarrituak, baita gizonen ezarritako klaseen arteko eta genero-barneko elkartzunean oinarritutakoak ere. Izan ere, gizonen, talde sozial gisa, eta banaka zein taldeka, emakumeak zapaltzen dituzte, banaka eta taldeka zapaldu ere, eta haien gorputzetako eta produktuetako ekoizpen- eta ugalketa-indarrak jabetzen dira, dela bitarteko baketsuen bidez, dela indarkeria erabiliz.

Patriarkatuari buruz egindako azterlan feministek eta hura eraikuntza historikoa eta soziala delako egiaztapenak erakusten dute badaudela aukerak haren ordezkari eredu sozial justu eta berdintasunezkoa ezartzeko.

<http://www.mujaresenred.net/spip.php?article1396>